

Elitea %1 aberatsena? Mintza gaitezen ondoen bizi den beste %20az ere



Pello Zubiria Kamino
@pellozubiria

2008an krisi handia lehertu zenetik, eta bidenabar Occupy Wall Street mugimenduak metropoli aberatsenetako plazak inarrosi zituenetik, asko zabaldu zen “geu gara %99” ideia, alegia piramide sozialaren gailurreko populazioaren %1 aberatsenak zanpatzen gaituela azpiko gainerako %99ak. Egia osoa pittin bat konplexuagoa da. Gizartearen piramidean garrantzia berezia daukate goiko %20 aberatsenek ere, azken hamarkadotako garapenari etekin gehien atera diotenenk.

Barack Obamak ez du erraz ahaztuko Saudi Arabiarako hegaldi hura, bere alderdiko notableek lotsaizun geratzera behartu zutenekoa. 2015eko urtarri-lean gertatu zen. Riadera eraman behar zuten hegazkinera igo aurretik sinatua zuten hauteskunde programan agindutako neurri sozialdemokrata kutsukoa: aberatsenei seme-alaben unibertsitate ikasketetarako aurrezte planen zerga-sariak kentzea, trukean askoz herritar gehiagorentzako mesedegarri izango ziren neurri fiskalak ezarriz.

Obamari hegazkinean parlamentuan gehiengo demokrataren burua zen Nancy Pelosi hurbildu omen zitzaion, ohartaraztera legebiltzarkideak oso urduri ari zitzaizkiola deika, beren boto emaile asko –urtean 100.000 dolar (83.000 euro) baino gehiago irabazten dituztenak– protestan ari zirela neurri berriak kaltetzen zituelako. Hegazkinak Riaden lurra hartzerako Obamak lege proposamena atzera botea zuten, bere progresista urguilua irentsirik.

Richard V. Reeves ekonomialariak kontaktu zuen gertatua joan den urriko *Le Monde Diplomatique*n. “Obamak hartu nahi zuten neurria ona zen, baina gutxietsi egin zuten goiko klase ertainak [upper middle class ingelesez] AEBetako bizi politikoan daukan garrantzia”.

Sortzez ingeleza den Richard V. Reeves ekonomialari eta kazetaria Liberal Demokratren aholkulari aritu ostean AEBetara joan zen, berak kontaktu duenez urez bestaldean espero zuelako aurkitzea Bri-

tainia Handikoa baino irekiera eta mugikortasun handiagoko gizarte bat. Antza, uste baino askoz gizarte zurrunago bat topatu du han ere. Horretaz idatzi du nahikotxo oihartzun lortu duen liburua: *Amets pilatzaileak [Dream Hoarders]*. Azpitituluan laburbildu dio mamia: “Nola AEBetako goiko klase ertainak beste guztiak hondoratzen dituen, zergatik den hau arazo eta zer egin konpontzeko”.

Gizarte barneko berdintasunik eza gai oso beroa izaki, dio Reevesek, eztabaida asko fokalizatu da iparramerikarren %1 aberatsenean, gainerako %99a talde homogeneoa balitz bezala. “Sarri gertatzen da piramidearen gailurreko klub hautatu horren kontra gaizki esaka gogorren aritzea zein eta haiengandik hurbilen daudenak. 2012ko maiatzaren 1ean Occupy Wall Streetek deituta karrikara atera zirenen artean hirutik batek urtean 100.000 dolar baino gehiagoko diru sarrerak zeuzkan. (...) Hiper-aberatsen luxuez jarduteko obesioa baliatzen dute hain txit aberatsak ez diren eliteek, beren pribilegioak oharkabean pasa daitezen”.

AEBetan populazioaren bostetik bat, %20, omen da urtero 112.000 dolar –93.000 euro– baino gehiago garbi irabazten diren familietan. Goiko klase ertain horrek dauka, batzuek besteko herritarrek baino diru gehiagoz gain, ikasketak maila handiagoa, osasun hobea, familia egitura orekatuagoa, bizi itxaropen luzeagoa eta baita politikan esku hartzeko ohitura ere. Trump bozkatu



duzen jende askok horiexek gorrotatzen dituzte: kazetariak, unibertsitateko irakasleak, kargu publikoak, teknokratak, burokratak... “arrazoiz edo arrazoi gabe, agintea daukaten beste batzuen babesean oparo bizi direlakoan”.

‘Iritziaren indarra’ daukan klasea

Reevesek proposatzen duen eztabaidak hasieran bertan topatzen du arazoa: zein irabazi kopurutatik aurrera da pertsona bat aberatsa? Gaia gehixeago konplikatzen da “irabazia” zeri deitzen zaion erabakitzen hasita. Frantziar Ezberdintasunen Behatokiak proposatzen du, esaterako, kontatzea etxe bateko sarrerak zerga guztiak kenduta garbi, eta familia bat aberats jotzea diru sarrerok Frantziako herritarren batzuek bestekoa bider bi edo gehiago direnean.

Horrela, pertsona bakarrek familia aberatsa litzateke hilabeteko garbi-garbi 3.075 euro sartzen baditu, haurrik gabeko bikote bat hilean 5.963 euro baino gehiago sartuta eta gurasoak gehi bi umez osatutako familiak 7.852 eurotik aurrera. Frantziar, *Observatoire des Inégalités*en arabera, familien %9 sartzen dira kategoria horretan. Ez nahasteko, nabarmendu behar da Reeves, AEBeko datuekin, populazioaren %20 aberatsenaz ari dela.

Kontua, ordea, klaseen arteko leizeaz gain bada beste hau ere: ezberdintasunaren betiketzea. Honi garrantzia berezia ematen dio Oxford elitistan ikasita bere burua eliteko kideztat aitoritzen



'The 4th Media' hedabidearen argazkian, Occupy Wall Streeten manifestazio bat Washingtonen 2012an. Afixan aldarrikatzen dute "Geu gara %99a" eta eskatzen milioidunei zergak ezarri, lanpostuak sortu eta aurrekontuak murrizketak baino lehenagoko egoerara itzultzeko. Eztabaidagarria dirudien arren OWSeko kideen herena populazioaren %20 aberatsenekoa izatea Richard V. Reevesek dioen moduan, arazoa %1en pribilegioetan fokalizatu eta gainerako %99a zaku berean sartu izanak bere mugak erakutsi ditu ondoko urteetan.

duen Reevesek. Klase horretako kideek beren artean partekatzen dituztela enplegu interesgarrienak, postu onenak "etxean" geratu eta hurbilekoak ez direnei nahita edo oharkabean bidea itxiz.

Ororen buru, dio Reevesek, "sekulako indarra daukagu klase moduan. Botere-tsuak gara, gure eskuetan daukagulako Bertrand Russellek 'iritziaren indarra' deitzen zuena. Bizi publikoa gidatzen duten gune guztietan postu nagusi guzti edo ia guztietan goiko klase ertainetako kideak daude, izan hedabideetan, uni-bertsitatean, zientzietan, publizitatean, iritzi neurketak egiten dituztenetan edo arte munduan. Gotorleku horietan gure posizioak eta eskumenak sendotzen enplegatzen dugu hein handi batean gure indarra".

Ekonomialari autokritikoari kontutan eduki behar zaio "gu gara %99a" diskur-

tsoaz egiten duen kritika, aberastasunaren eskaileran 98an edo 95ean dagoena lasai uzten duelako, gizarteko ezberdintasun larrien ondorioekin berak zerikusirik ez balu bezala. "Horrela [%20 aberatseneko kideok] errua egotziko diete txit-aberatsei, edo txit-txit-aberatsei, beti baitago norbait gu baino aberatsagoa... Baina klase etenari dagokionez, ez bakarrik diru irabazien gaian baina ezta etxebizitzaren merkatuari edo haurren hezkuntzari dagokionez, kontua ez da %1arena bakarrik".

Horrela, gero eta azpiagoko klaseengandik bereiziago bizi den goiko klase ertaineko kideek beren pribilegioei eusten dieten bitartean, kontserbadoreek lortzen dute gaitz guztien errudunak jende txiroak, minoriak eta batez ere etorkinak izatea, eta ezkertiarrek %1eko elitearen kontrako diskurtsoare-

kin ez dute lortzen sistemaren benetan kaltetutako jendeak erakartzerik.

Kontuok ez dira AEBetan bakarrik gertatzen. Azaroaren 19an *Berria* egunkarian Jon Fernandezek argitaratutako *Atsedean bako erretiroa* dossier mardulean, pentsioarekin bizi ezin diren kasuen aldamenean, zuzenbide doktore batek honela justifikatzen zuen 70 urte arte lanean jarraitzea: "Soldata handiagoa daukatentzat, pentsioarekiko tartea handiagoa da langile arrunten kasuan baino: 1.800 euro irabazten badituzu, 1.600 euroko pentsioa izan dezakezu; baina hilean 4.000-5.000 euroko soldata baduzu, geratuko zaizun pentsio maximoa 2.600 eurokoa izango da. Askok jaisten zaizu". *Sic!*. Euskal prentsaren edozein irakurle prekariok katedratikoaz errukitu behar balu bezala. ■





ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com




50 urtez elkarrekin